

Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistika, 2017

Emitzen laburpena, 2009-2017

2019ko urria



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



Aurkibidea


1. Arteei eta kultura-industriei buruzko zifra nagusiak.....	3
2. Asimetriak	6
3. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria.....	7
4. Bolumen ekonomikoaren eta enpleguaren bilakaera	8
5. Euskarazko kultura	10
6. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna	13
7. Nazioartekotzea.....	14
8. Emakumeen presentzia enpleguan	17



1. Arteei eta kultura-industriei buruzko zifra nagusiak


- **Kultura-sarearen susperraldia: 673 agente 2017an.** 2015. urtearekin alderatuta, agenteen sarearen % 7,0ko hazkundera izan da (44 agente gehiago). Kontuan hartu behar da 2017an ikus-entzunezkoen sektoreko 54 agente berri gehitu direla (zinema-aretoak). Dena den, diskoetxeek (% 100,0), arte eszenikoen ekoizleek (% 21,1), ikusmen-artearen erakustegiek (% 20,0), musika-programatzaile publikoek (% 11,6) eta arte eszenikoen programatzaileek (% 10,3) gora egin dute, eta neurri txikiagoan, arte-galeriek (% 5,6) eta kontzertu-aretoek (% 5,3). Bilakaera 2009an izandakoarekin alderatuta aztertzen bada, ikus daiteke 2017an 3 agente gutxiago daudela; beraz, soilik % 0,3ko jaitsiera izan da.

1. irudia. Agenteak, sektorearen arabera. Datu absolutuak. 2009-2017.






2. irudia. Agenteen sarearen bilakaera, sektorearen arabera. 2009-2017. Oinarritzko indizea 100=2009.



Oharra: 2. irudiko ikus-entzunezkoen datuetan ez dira zinema-aretoak sartu.

- **Diru-sarrerak gehitu dira; diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da.** 2015. urteari dagokionez, diru-sarrerak gehitu dira ia sektore guztietan, liburuaren eta diskoaren industrietan izan ezik. Susmatzen da joera-aldaketa bat dagoela 2011. eta 2013. urteekin alderatuta, urte horietan diru-sarrerak jaitsi egin baitziren 2009. urtearekin alderatuta; 2015. eta 2017. urtetan, aldiz, zifrak leheneratzen hasi dira.


3. irudia. Agente kopuruaren aldakuntza eta sektoreen araberako diru-sarrerak. Ehunekoak. 2015-2017.





- **Enplegua gehitu da.** Enplegua gehitu da 2015. urtearekin alderatuta (% 4,3), 122,1 enplegu gehiagorekin. Enpleguak berreskuratu badira ere, guztizkoa 2009ko zifretatik behera dago oraindik ere (% 6,6 gutxiago).

4. irudia. Agenteetako langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sektorearen arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009-2017






2. Asimetriak

- **Agente kopuru murriz batek eusten dio diru-sarreraren metaketari.**

Urteetan zehar ikusi denez, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k diru-sarrera guztien hamar eurotik 6-8 euro metatzen dituzte ia sektore guztietan. Estatistikaren aurreko edizioetan adierazi genuenez, asimetria-maila desberdina da eta dagokion jardueraren eta negozioaren ezaugarrien mende dago, baina, dena dela, diru-sarreraren eta, neurri txikiagoan, enpleguaren metaketa gertatzea eredu komuna da arteen eta kultura-industriren sektoreen egiturari.

5. irudia. Agente-tipologiaren rankinga, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren diru-sarreraren metaketa-mailaren arabera. Ehunekoa. 2009-2017.






3. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria

- **Kultura erreproduzigarriari lotutako agenteak % 6,0 gehitu dira (16 agente gehiago) eta zuzeneko kulturari lotutakoak % 7,7.** Beste edizio batzuetan ez bezala, 2009. urteaz geroztik, datu absolututan, kultura erreproduzigarriak 9 agente irabazi ditu (litekeena da egoera hori aldatu izana ikus-entzunezkoen sektorean 54 zinema-areto sartu direlako); eta zuzeneko kulturak 10 galdu ditu.
- **Zuzeneko kulturak diru-sarreretan eta enpleguan duen pisua gorantz doa.** Zuzeneko kulturako diru-sarrerak % 20,9 igo dira; enplegua, aldiz, % 1,5 jaitsi da. Kultura erreproduzigarrian gehiago igo da enplegua (% 6,0) diru-sarrerak baino (% 3,2). 2009. urtearekin alderatuta, 2017an 15,7 milioi euro gehiago metatu dira (% 11,3) zuzeneko kulturaren; alabaina, agenteen % 2,5 gutxiagok metatu dituzte. Eta kultura erreproduzigarrian, 2009. urtearekin alderatuta izandako diru-sarreraren igoera % 39,5 izan da 2017an (71,3 milioi euro gehiago), agenteen % 3,3 gehiagorekin.

6. irudia. Arteetako eta industrietako agenteen banaketa, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren arabera. Ehunekoak. 2009-2017.






4. Bolumen ekonomikoaren eta enpleguaren bilakaera

- **Zertxobait berreskuratu da diru-sarreraren batezbestekoa, baina 2009ko zifretatik urrun dago oraindik.** Liburuaren eta ikus-entzunezkoen sektoreetan izan ezik, gainerako sektoreetan gora egin du diru-sarreraren batezbestekoa. Ikusmen-artearen sektorea nabarmentzen da, diru-sarreraren batezbestekoa 2015ean baino ia % 60,0 handiagoa baita; musika ere nabarmentzen da, % 20,0ko igoera izan baitu. 2009. urtearekin alderatuta, batezbestekoa beherago dago oraindik, baina musikaren eta ikusmen-artearen sektoreetako zifrak % 25,0 gehiago dira 2017an.

7. irudia. Diru-sarreraren batezbestekoaren bilakaera, sektoreen arabera. (Milako euro) 2009-2017. Oinarrizko indizea 100=2009.




- **Batezbesteko enpleguari eusten zaio arteetan eta kultura-industrietan, ikusmen-arteetan eta ikus-entzunezkoetan izan ezik.** 2017an, enpleguak pixka bat behera egin du (2015ean, enpleguen batezbestekoa 4,5 zen, eta 2017an 4,4). Jaitsiera horrek musikaren eta ikus-entzunezkoen sektoreetan du eragin handiena; azken sektore horrek



2015eko batezbestekoak baino batezbesteko txikiagoak izan ditu. Dena den, arte eszenikoen, liburuaren industriaren eta ikusmen-artearen batezbestekoak 2015ekoak baino hobeak dira. Ikusmen-artearen sektorearen batezbestekoa % 38,6 handiagoa da 2017an. 2017ko datuak 2009ko datuekin alderatuta aztertzen baditugu, ikusiko dugu 2015eko konparazioen antzeko joerak daudela, liburuaren industrian izan ezik, kasu horretan gora egin orde behera egin baitu (liburuaren industriako enpleguaren batezbestekoa % 8,0 jaitsi da 2009tik 2017ra).

8. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideen batezbestekoaren bilakaera, agente-tipologiaren arabera. 2009-2017. Oinarrizko indizea 100=2009.






5. Euskarazko kultura

▪ Euskara arte eszenikoetan

2015. urtearekin alderatuta, bilakaera hau izan du: Gipuzkoan eta Bizkaian mantendu egin da, Gipuzkoan goranzko joera txiki bat izan da eta Bizkaian, aldiz, beheranzkoa. Alabaina, Araban askoz ere handiagoa da 2015etik 2017ra bitarteko jaitsiera. Argi ikusten da euskarazko ekoizpena 2009an baino handiagoa dela hiru lurraldeetan.


9. irudia. Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoetako ekoizpenean (1), Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2009-2017.



(1) Euskarazko zein euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpena biltzen da

Euskarazko arte eszenikoen programazioari dagokionez, 2015ean nabarmentzen zen goranzko joera dago 2017an ere: 2011, % 30, 2013, % 33,4, 2015, % 34,9 eta 2017, % 37,7.

10. irudia. Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoetako programazioan, Lurralde Historikoaren arabera. . Ehunekoak. 2009-2017.






(1) Euskarazko zein euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpena biltzen da

Euskara ikus-entzunezkoetan

Aurreko urteetan ikusten hasi zenez, ikus-entzunezkoen ekoizpena jaisten ari da hiru lurraldeetan. 2017an, jaitsiera handiena Bizkaian izan zen; lurralde horretan, euskarazko ekoizpenaren pisua % 6,4 da (2015. urtearekin alderatuta, % 80,0 inguru jaitsi zen; 2017an, euskarazko ekoizpenaren pisua % 33,4 zen). Gipuzkoan ere jaitsiera nabarmena ikusten da, ekoizpenak % 30,0 baino gehiago jaitsi dira, eta % 28,3ko pisura iritsi dira. Araba da zifra positiboak dituen lurralde bakarra, 2015ean % 17,1 izatetik 2017an % 18,2 izatera igaro baita. Joera horiek erakusten dute jaitsiera nabarmena izan dela 2009arekin alderatuta.

11. irudia. Euskarak ikus-entzunezko ekoizpenean duen pisu erlatiboaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2017.



(1) Euskarazko zein euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpena biltzen da


(2) EITBko ekoizpena ez da barnean hartzen



Euskara argitalpen-ekoizpenean

2017an 2015eko zifrei eusten zaie. Euskarazko argitalpen-ekoizpenaren pisua argitaratutako hamar ale bakoitzeko 5-6 ale da.

12. irudia. Euskarazko argitalpen-ekoizpenaren bilakaera. 2009-2017.






6. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna

- **Ekarpen publikoekiko mendekotasun-maila % 4,0 ingurukoa da.** 2017an, agente pribatuek laguntza publikoekin zuten mendekotasuna % 4,2 da (2015ean, % 4,3). Mendekotasun publiko handiena duen sektorea arte eszenikoen sektorea da (% 9,7 ekoizleek eta % 40,3 programatzaileek).
- **Programazio eszenikoaren % 79,8 publikoa da.** Arte eszenikoen agente publikoen programazioa hamar emanaldi bakoitzetik zortzi da; ikusmen-arten kasuan, hamar erakusketatik ia zazpi; programatutako kontzertuetan hamarretik bost inguru dira.

13. irudia. Titulartasun publikoko agenteek egindako jardueraren pisu erlatiboa. Ehunekoak. 2009-2017.







7. Nazioartekotzea

- **Kultura-eskaintzak atzerriko artisten presentziarekin duen iragazkortasun txikia areagotu da.** EAEko edo Estatuko gainerako lekuetako artistek duten presentziaren pisuak gora egin du 2017an; aitzitik, atzerriko artisten kultura-eskaintzaren presentziak behera egin du. Diskoetxeak nabarmentzen dira, egindako kopien % 87,0 EAEko artistenak baitira, eta ikusmen-artearen erakusketak ere nabarmentzen dira, erakusketen % 76,0 EAEko artistenak baitira. Atzerriko kultura-eskaintzaren pisuaren jaitsiera handiena ikusmen-arteetan dago, atzerriko artisten erakusketen ehuneko ia bost puntu jaitsi baita.


14. irudia. Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua. Ehunekoak. 2009-2017.





- **Euskal antzerki-konpainiek atzerrian duten presentzia areagotu egin da.** Antzerki-konpainiek atzerrian egindako antzezpenak guztizkoaren ia % 20,0 dira, orain arteko zifrarik handiena. Dantza kontrakoa gertatu da.


15. irudia. Dantza ekoizten duten konpainiek gauzatutako emanaldiak, emanaldiaren tokiaren arabera. Ehunekoak. 2009-2017.





- **Berritze-tasak behera egin du.** Berritze-tasak (guztizkoarekin alderatuta dauden ekoizpen berriak, alegia) erakusten zuen EAEko agenteen ekoizpen-bizitasunean gorakada zegoela 2015ean. 2017an, zifrek behera egin dute berriro eta 2013ko zifrek baino jaitsiera handiagoa izan zuten. Jaitsierarik nabarmenena berritasun diskografikoetan izandakoa da, % 38,9ra jaitsi baitira; inpaktu hori handiagoa da 2015ean, % 64,9raino igo zirelako.

16. irudia. Berritze-tasa. Ehunekoak. 2009-2017.






8. Emakumeen presentzia enpleguan

- **Emakumeek enplegu osoan duten pisua zertxobait igo da 2017an, baina oraindik ere oso aldakuntza gutxi ditu denboran zehar.** 2015ean, emakumeek arteetako eta kultura-industrietako enplegu guztietan zuten pisua % 47 zen; 2017an, aldiz, % 48,6. Liburuaren, ikusmen-artearen eta musikaren sektoreek emakumeen presentziaren % 50,0 gainditzen dute, baina arte eszenikoen sektorea (% 49,0) eta ikus-entzunezkoen sektorea (% 41,2) ez dira parekotasunera iristen.

17. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoa. 2009-2017.



Oharra: Desberdintasunak hobeto ikusteko, grafikoa % 35ean hasten da.